

## Otxoa - Arinen «Doctrina» — (1713)

Euskal-aditzari buruzko teoria oso bat oraindik eginkizun daukagu. Adizkien zatirik gehienak (aditz-gai, aditz-jabe, askargille, e.a.) azterlan baliotsuen gai izan dira, noski; hala ere, aditzaz egin ditzakegun galderarik funtsezkoenak, hots, flesio-zatien sorburu eta aldakuntzekikoak, zitezken sistemetan egin diran aukeren zioak, erantzunik gabe diraute.

Erantzun hortaz jabetu ahal izateko euskalki bakoitzaren baitako nahiz euskalkien arteko alderaketak ahalik eta gehien ugaritzea beharrezko zaigula agerian dago. Gipuzkera idatzia, ordea, alderatze horretarako berandu heldu zaigu; izan ere, Etxeparerena 1545.garrenekoa dugu, bizkaierazko «Refranes y Sentencias» 1596.garrenean agertu zan, bainan Gipuzkoan ez da 1713.—garrenerarte euskal—libururik argitaratzen. Gipuzkera zaharragoaren lekuko, 1557.garrenean Tolosan emandako ezkontza-hitza, Tolosan bertan 1619.an azaldutako bertso batzu ...

OTXOA-ARINEN «Doctrina Christianaren explicacio» 1713.garrenean azaltzen da beraz. Gaia dela eta, hizkuntzaren aldetik aberats izango denik ezin pentsa diteke. Beste bi aldetatik datorkio bere garrantzia: Larremendik ereduazko gipuzkera bat eskeini aurretikoa izatetik eta, batez ere, egileak dionez «Villafranca Guipuzcoaco onetan euscaraz itz eguiten dan moduan» idatzita egotetik.

Hori dela eta, Goierriko hizkerak eta, bereziki, aditzak bi mende eta erditan egin duen aldakuntza zehatz ikasteko bide egoki bat eskeintzen digu.

Bere aditz-flesioak aldatzean honako arau hauei jarraituko natzaie:

- a) Otxoa-Arinek darabiltzienen aurrean oraingo giputzek darabiltzitenak jarriko ditut.
- b) Flesioak banan-bana emango ditut, bakoitza zenbait aldiz darabilen mako artean jartzen dudala.
- d) Flesioek aurrizki nahiz atzizkiren bat daramatenetan marratxo baten bidez adieraziko dut, bainan aurrizki nahiz atzizkiek flesioari zerbait alda-arazten diotenetan mako artean jarriko ditut; honela, adibidez:

Atzizkirik gabekoa: ZAN

Flesioa aldatzen ez danean: ZANEAN ..... ZAN-

J. OREGI

Flesioa aldatzen danean: ZALA ..... ZA(LA)  
ZALAKOA ..... ZA(LA)-

Nakion, beraz, OTXOA-ARIN-en aditz-flesioak emateari.

IZAN-enak.

(ni)	naiz	... naiz (3); naiz- (2)
(hura)	da	... da (125); da- (150); dà (37); dà- (5); dá (47); dá- (2); dá (25); dâ- (1); de- (1); -da- (5); (ez)ta (1); (ez)ta- (3)

- 1) Flesio horietan azentuak inolako esan-nahirik daukanik ez du ematen, batzuetan esakune ber-bera azentudun eta azenturik gabe agertzen bait-da.

129.gn orrialdean «bear dad bezelakoa» dio, DAN-en ordeaz.

(gu)	gera	... gerade- (3)
(zu)	zera	... zerade (2); zerade- (3)
(haiek)	dira	... dirade (63); dirade- (39); dira (5); dira- (21); diráde (1); -dira (2); dirâ- (1)

- 2) Ikus ditekenez, DE-dunak ugariago dira.

(ni hari)	natzaio	... naitzako (1)
(hura neri)	zait	... zat- (1)
(hura hari)	zaio	... zayo (13); zayo- (8); zaio (1); zaio- (6)

- 3) NAITZAKO-ri, Goierrian bizirik dirauen ZAKO legokiokela ematen du. Hala ere, oraingo gipuzkerazko ZAIO dakar.

(hura guri)	zaigu	... zaku- (1)
(hura haiei)	zaie	... zaizte- (2); zaie- (1)

- 4) HARI/HAIEI bereizteko bi era darabiltzi beraz: Orain bezelako ZAIO/ZAIE, eta Z-ren bidezko ZAIO/ZAIZTE. Hizkuntzek askotan, adierazibehar berri bat gertatzen zaienetan, bide bakar bat ez

bainan aukerapide bat izaten dute; agian, inoiz ZAIIO/ZAIZTE-n bi-dea ere aukera zitekena zateken.

(haiek hari)            zaizkio            ... zaizka (5); zaizka- (7); zaiozka (1); zaizko- (1); (ez)tzaizka- (1)

5) Giputz-gipuzkerakotzat jotzen diranak ditugu.

(hura)                zan                ... zan (60); zan- (15); za(la)- (10); (e)tza(la)- (1); (ez)tza(la)- (1); zán- (1); zàn- (1)

(haiek)                ziran             ... ziraden (20); ziraden- (1); ziran- (1)

6) Ikus 2gn oharra.

(hura hari)            zitzaion            ... zitzaion (2); zitzakon (1); zitzako(la)- (1); zitzakan (1)

(haiek hari)            zitzaizkion        ... zitzaizkon (1); zitzaizkan (1)

7) 3gn oharrean ZAKO-rik ez zegoela genion; ZITZAKON bai ordea, aukera garbi egiteke zegoela erakusten dutela.

(hura haiei)            zitzaien            ... zitzaten (1); zitzate(alarik) (1)

(hura)                .....                ... liza(la)- (1)

8) «...DAN CHIQUIENA LIZALARICAN ERE ...»

Gipuzkeraz galdurik dagoen aldi bati dagokio flesio hau; orain,

«berandu *etorten zana* zigortu egingo zuela esan zien»

edo genioke; ETORTEN ZAN-ek, ordea, gertatu dan zerbait adierazten du berez, eta

«berandu *etorten zana* zigortu egiten zuen»

zuzen legokenarren, lehenbizikoak

«berandu ETORTEN LITZA(TE)NA...»

behar luke, Otxoa-Arinek dionaren arauera.

(hura hari)            litzaioke            ... litzaio (1)

9) «... ASCO CONVENICO LITZAIIO JAQUITEA ...»

Bizkai-itxurako LITZAKEO batetik

litzaqueo > litzakio > litzaio

etor ditekela dirudi.

J. OREGI

(hura)	balitz	... baliz (4)
(haiek)	balira	... balira (2); balirade (1)
(haiek)	dira(te)ke	... dirate- (1)

10) NAIZATE, HAIZATE ... sailekoa; geroaldia adierazteko KE-dunak baino zaharragoak, noski.

(hura)	litza(te)ke	... lizate (2); lizate- (1); lizàte (1)
(haiek)	zira(te)ken	... ziratean (1)

11) Azkeneko bi hauei ere aurreko oharra dagokie.

\*EDIN-enak.

(hura)	diteke	... diite (3); dite (2); dite- (1)
(haiek)	ditezke	... ditezke (3); ditezke- (2)
(hura)	liteke	... liite (2); liite- (1); leite- (1); leike (1)
(haiek)	litezke	... litezke (1); litezke- (1)
(hura)	ziteken	... zeitean (3); zitean (1)

12) Hemen ere, aditz-gai bakarrari dagozkionak KE-rik gabeko ditugu, eta orain bizkaierakotzat jotzen ditugun

NAITE, DAITE, LEITE, ZEITEAN-en

antzerako edo berdin; LEIKE berriz honako hontan ageri da:

«... edo cein mandamenturen contra eguin LEIQUE pecatu ...»

\*EDIN-eko           LEITE eta  
EGIN-eko           LEGIKE > LEIKE

nahastu ditu beraz, bizkaieraz diharduten askok orain ere egiten duten bezelaxe.

(hura)	badadi	... baderi (1)
(hura)	dedin	... dadin (1); didin (1); dirin (1); (ez)tidin (2)

13) Ikusten danez, DA/DE/DI zalantzan daude.

(gu)	gaitezen	... gaitean (2); gaitezen (1)
------	----------	-------------------------------

14) Bizkai eta giputz-itxurakoak nahasi.

OTXOA - ARINEN «DOCTRINA» — (1713)

(hura hari)	dakion	... dakion (3); dagikoan (1)
15)	«... batere ezcutaduric guelditu ez DAGUICOAN moduan ...» Berriz ere *EDIN-enak eta EGIN-enak nahastekutzen dituela dirudi.	

(hura hari)	zekion	... (e)tzekion (1); (ez)tzekion (1)
(gu)	gintezen	... gindezen (1)
(hura)	bedi	... bidi (4)

EGON-enak.

(ni)	nago	... nago- (1)
(hura)	dago	... dago (27); dago- (21); (ez)tago (1); (ez)tago- (1)
(gu)	gaude	... gaude (8)
(zu)	zaude	... zaude- (3)
(haiek)	daude	... daude (5); daude- (11)
(hura)	zegoen	... zegoan (1); zegoan- (1); zegoa- (la)- (1)
(haiek)	zeuden	... zeuden (1)

ETORRI-renak.

(hura)	dator	... dator (4); dator- (6)
(gu)	gatoz	... gatoz (2)
(hura)	betor	... betor (1)

JOAN-enak.

(hura)	dijoa	... dijoa (1); dijoa- (5); dixoa- (1); dijea- (2)
(haiek)	dijoaz	... dijoaz (1)
(hura hari)	dijoakio	... dijoaka- (1)
(haiek)	zijoazen	... zijeazen (1)

UKAN-enak.

(hark ni)	nau	... nab(ela) (1)
(haiek ni)	naute	... nabe- (1)

J. OREGI

(nik hura) dut ... det (13); ded(an) (5); dod(an) (1)

16) NABELA, NABE, DODAN; egun Bizkaian darabiltzitenak.

(hark hura) du ... deb (52); deu (40); deb- (218); deb(ela) (3); (ez)teb (1); (ez)teb- (2); dab(en) (2); (ez)tab(en) (2); (ez)tâv(en)- (1); debe-!!(4)

17) Gipuzkerazko DET, DEK, ... E hutsezkoak nundik sor zitezken erakusten digute hemengo EU-dunok; bestalde, bizkaieraz NORI gabeak A-dun eta NORI-dunak E-dun izatea (dAu/dEutso) noraezeko dalako ustearen gezurtagarri ematen dute.

(guk hura) dugu ... degu (19) degu- (33); eztegu (1)  
 (zuk hura) duzu ... dezu (5); dezu- (3)  
 (zuek hura) duzute ... dezue (1)  
 (haiek hura) dute ... debe (13); debea (4); debe- (28); (ez)tebe (1); dabe(ela) (1)

18) HURA aditz-jabedunak bezela erabat bizkaitar itxurakoak,

(hark gu) gaitu ... gaitu- (4)  
 (nik zu) zaitut ... zaitud(an) (2)  
 (guk zu) zaitugu ... zaitugu (2)  
 (nik haiek) ditut ... ditut (2); ditud(an) (1)  
 (hark haiek) ditu ... ditu (21); ditu- (35)  
 (guk haiek) ditugu ... ditugu (7); ditugu- (5)  
 (zuk haiek) dituzu ... dituzu (2)  
 (haiek haiek) dituzte ... dituzte- (1); ditue- (1); ditue- (1)  
 (nik hura hari) diot ... diot (2); diod(an) (1)  
 (nik hura zuri) dizut ... dizut (5); dizud(ana) (1)  
 (nik hura haiei) diet ... diet (1)  
 (hark hura neri) dit ... dit (1)  
 (hark hura hari) dio ... dio (13); diò (2); digo (1); dio- (20); digo- (9); diago- (1)  
 (hark hura guri) digu ... digu (3); digu- (4)  
 (hark hura haiei) die ... die (5); diè (2); die- (6); diè- (2)

OTXOA - ARINEN «DOCTRINA» — (1713)

(guk hura hari)	diogu	... diogu (4); diogu- (8); diegu !!(1)
(guk hura haiei)	diegu	... diegu (2); diegu- (1)
(zuk hura neri)	didazu	... didazu- (1)
(haiek hura hari)	diote	... digoe- (3)

19) HAIEK aditz-jabearena E-z egiten duela, tarteko G hori bestela legoken IOE-ren luzeegia hausteko dagoela garbi dago.

(haiek hura guri)	digute	... digue- (2); digùe- (1)
(haiek hura haiei)	diete	... dizate- (2)

20) IZAN-ekoetan ikusi dugu HARI/HAIEI-n arteko bereizkuntza inoiz Z-ren bidez (ZAI0-ZAIZTE) nola egin duen; hemen ere antzera.

(nik haiek zuri)	dizkizut	... dirautzut (1); diutzud(an) (1)
(hark haiek neri)	dizkit	... dirautz- (2)
(hark haiek hari)	dizkio	... dirautza (7); diozka- (1)
(hark haiek guri)	dizkigu	... dirauzku (1); dirauzku- (1)
(guk haiek hari)	dizkiogu	... dirauzkagu- (1)
(zuk haiek neri)	dizkidazu	... dirautzazu- (1)

21) Orain artekoetan Otxoa-Arinen aditza bizkaieraruntz lerratzen bazan ere, hona hemen erabat sortaldera begira jartzen gaituzten zenbait flesio.

HURA aditz-gaidunetan giputz-flesioak eman dizkigu (DIOT, DIOK, ...), HAIEK-dunetan berriz RA-dunak dakartzi.

(hark gu)	gintuen	... ginduzan (3)
(nik hura)	nuen	... neban (1)
(hark hura)	zuen	... zeban (67); zeba(la) (12); zeban- (9); (et)zeban (1); (ezt)zeban (1); zebe !! (1)

22) Aditz-gunari dagozkionetan bizkaiera-itxurakoak hauek ere baina. bizkaitarrek ez bezela aurrean Z daramatenak (EBAN/ZEBAN); legez giputz eta mintzairaz bizkaitar diren zenbait herritan orain egin ohi den bezelaxe, alegia.

(guk hura)	genuen	... genduan (1)
(zuk hura)	zenuen	... zenduan (1)

J. OREGI

(haiek hura) zuten ... zebean (5); zebean- (1); (ezt)zebean (1); zèben (1); zeban !! (1)

23) Hauei ere aurreko oharra dagokie.

(hark haiek) zituen ... zituan (20); zituan- (5)  
 (haiek haiek) zituzten ... zituèn (2); zituzten (1); zituen- (1)

24) Orainaldikoetan bezela, hemen ere HAIEK aditz-jabea adierazteko bi erak agertzen dira, E eta TE:

DITUE, ZITUEN, eta DITUZTE, ZITUZTEN

(hark hura neri) zidan ... ziran (1)  
 (hark hura hari) zion ... zigon (13); zion (2); zion- (2)  
 (hark hura guri) zigun ... zigun (1)  
 (hark hura haiei) zien ... zien (8)  
 (haiek hura hari) zioten ... zigoen (1)  
 (hark haiek hari) zizkion ... ziozkan (3); zirauzkan (1)  
 (hark(haiek guri) zizkigun ... zirauzkun (3)

25) Ikus 21gn. oharra.

(hark hura) balu ... baleu (3)  
 (hark haiek) balitu ... balitu (1)  
 (hark hura) luke ... leuke (1)  
 (hark hura) ..... ... leban- (1)

26) «(HURA) CUMPLITZEN LEBANAC ...»

NORK gabeko laguntzaileaz geniharduela 8gn. oharrean aipatu dugun aldia bera. Etxeparek honela darabil:

«... ama emazte LUYEN ala ez ...»

«... mirail bat nik ahal banu hala LUYEN donoa ...»

Eta Leizarragak, «... nahi LUENA fitetz egin lezake ...»

\*EZAN-enak eta EGIN-enak.

(hark hura) dezake ... daike (6); daike- (6); dezake- (2); dagike- (1)  
 (guk hura) dezakegu ... daikegu- (1)  
 (hark haiek) ditzake ... ditzake (6); ditzake- (2)



(hark hura hari)	dezaioke	... deikeo- (1); dizoko- (1)
(hark hura)	lezake	... leike- (1)
27) Beste LEIKE bat ere ba dakar; hain zuzen, 12gn. oharrean LITEKE (Otxoa-Arinen LIITE, LEITE) behar lukela esan dugun hura.		
(nik hura hari)	nezaioke	... neikeo (1)
(hark hura hari)	lezaioke	... leikeo (1)
(hark hura)	zezaken	... zeikean (1); zeikea(la) (4); zeikean- (1)
(haiek hura)	zezaketen	... zezaketen (1)
(hark haiek)	zitzaken	... zizake(la) (1)
(hark hura)	dezan	... dagian (3); dagiàn (1); dagien (1); (ez)tagian (1)
(guk hura)	dezagun	... dagigun (3); dagigu(la); daigu(la) (2); dezagu(la) (5)
(zuk hura)	dezazun	... dagizu(la) (1)
(nik zu)	zaitzadan	... zaitzatan (1)
(hark haiek)	ditzan	... ditzan (3)
(guk haiek)	ditzagun	... ditzagu(la) (2)
(hark hura guri)	dezaigun	... deigun (1)
(guk hura hari)	dezaiogun	... diozagu(la) (1)
(hark hura)	zezan	... zegian (3); segien- (1)
(hark hura)	beza	... beza (10)
(haiek hura)	bezate	... beze (1)
(zuk gu)	gaitzazu	... gaitzatzu (2); gaitzatzu- (1)
(hark haiek)	bitza	... bitza (3); vitza (1)
(hark hura hari)	bezaio	... begio (1)

28) Ikus ditekenez, gipuzkerak \*EZAN-en bidez ematen dituanak Otxoa-Arinek bi eratan darabiltzi: Aditz-gai bakardunak gehien- gehienetan bizkaierak bezela EGIN-ekin,

(hark hura) DAGIKE > DAIKE, eta

(hark hura hari) DEGIKEO > DEIKEO,

eta aditz-gai askarra daukatenak berriz, behin ere hutsik egiteke, \*EZAN-ekin.

(zuk hura) ..... ... eikezu (1)

29) ESAN EIQUEZU ...

Añibarrok (Esculiburua) aginte-era bi bereizten ditu:

EGIZU, EGIDAZU, EGIOZU, ... «gauzea ordu berean eginbearra danean»,

J. OREGI

EIKEZU, EIKEDAZU, EIKIOZU, ... «geroagogarrenean egin bearko danean».

Bigarren hau darabil Otxoa-Arinek flesio hontan.

(zuk hura)	egizu	... egizu (1)
(zuk haiek)	egitzazu	... egitzazu (1)
(zuk hura neri)	egidazu	... egidazu (3)
(zuk hura guri)	egiguzu	... egiguzu (1); eiguzu (1)
(zuk haiek neri)	egizkidazu	... egiztatzu (2); egiztzu (1)

30) Azkeneko EGIZTZU honi huts baten itxura ematen zaio.

(zuk haiek guri)	egizkiguzu	... egizkutzu (1)
------------------	------------	-------------------

EDUKI-renak.

(zuk ni)	na(d)ukazu	... nadukazu (2)
(hark hura)	da(d)uka	... daduka (10); daduka- (19); -dauka (1)
(guk hura)	da(d)ukagu	... dadukagu (1); dadukagu- (2)
(zuk hura)	da(d)ukazu	... dadukazu (1)
(hark haiek)	da(d)uzka	... daduzka (2); daduzka- (3)

31) Baten,

«... Eleiza Ama Santuac seinalaturik DADUDAZCAN jay ...»  
dio; oker dagoela eta DADUZKAN behar lukela garbi dago.

(hark hura)	ze(d)ukan	... zedukan (4); zeduka(la) (2)
(hark hura)	le(d)ukake	... ledukake (1)

JAKIN-enak.

(nik hura)	dakit	... dakit (1)
(hark hura)	daki	... daki (1); daki- (2)
(haiek hura)	dakite	... dakiè (1)
(nik haiek)	dakizkit	... dakitzat (1)
(hark hura neri)	.....	... diakit (1)

32) Orain gipuzkeraz ezin emango genukena. Izan ere, NORI-dunak eratzeko aditz-gunaren ondoren (K)I jartzeaz baliatzen gerala,



34) Aditz-flesioekikoa bukatzeko, hona hemen zalantzazko bat:

«... (hari) escatzea ZAIZCUN doè ... edo mesede guziak ...»

Itxura danez, NORK gabeko

(hura guri) ZAIKU-ri legokioken

(haiek guri) ZAIZKU

dugu. Hori horrela izatekotan, irar-hutsez hitzen bat falta, eta

... (hari) eskatzea KOMENI zaizkun doe ... guziak

edo beharko luke.

ADITZ-FLESIOEZ bestekoak.

Aditzen NORK-dun edo NORK-gabetasunari gagozkiola, egun bitxi gertatzen zaizkigun esakuna hauek dakartzi DOCTRINA-k:

«...inori lagundu ZAION ...», eta «... laguntzen ZAIZKA alkarri ...»,  
inori lagundu DION-en eta laguntzen DIOTE-n

ordez. Bainan ongi begiraturaz gero, berez, LAGUNTZEA lagun bilakatzea besterik ez da, eta «adiskidetu egin natzaio» bezain bidezko da «lagundu egin natzaio» ere. Harrez gero, LAGUNTZEA «lagun bilakatzea» adierazte-tik «laguntza ematea» esan nahi izatera aldatzeak ekarriko zuen, noski, NORK-dun laguntzailea erabili behar izatea. Beste aditz batzuei ere antzera-koa gertatu bide zaie; adibidez,

ni hormari NAUTSO (eusten natzaio)

ni lanari NAKIO (ekiten natzaio)

ni bideari NARRAIO (jarraitzen natzaio)

berez NORK gabeko zirenak, egun

eusten DIOT, ekiten DIOT, jarraitzen DIOT

NORK-dun bihurturik. Otxoa-Arinek berak LAGUNDU azkeneko era **hontan** ere ba darabil («... nor dan ... lagundu ZION persona ...»). Euskal aditzaren bilaka-bideaz jabetzeko aztergairik interesgarrienetakoa dugu, nere ustez, honako hau.

ATZIZKIEI buruzkoak.

-TZAT. Idazle zaharrek erruz zerabiltenarren, Lafittek dionez orain bakan gertatzen da. Otxoa-Arinek

«conseguidu SEGUIENÇAT» (konsegitu zezantzat, zezan) dakar.

-ARREN. «Christo Jaungoicoa dan parteARREN, dâ Aita Eternoaren Seme Eternoa ...»

Azkuek, atzizki hontaz diharduela, griña-izenen bati datxikola ERA adierazarazten diola dio; adibidez,

damuarren = damuak eraginda

lotsarren = lotsak eraginda

pozarren = pozak eraginda.

Beste batzuetan zioa, karia ere adierazten du,

«Jainkoarren (= Jainkoagatik) egiten du»

esakunean eta Otxoa-Arinek dion hortan bezela.

HIZTEGIAREKIKOAK

EGIA, ALDIA. Bietan, azkeneko A hitzaren beraren zati agertzen da:

«egiA oec», «amar aldiAz»

EGUN. Bizi geran egun hau adierazteko sortaldeko euskalkiek darabilte, eta bizkaiera zaharrean ere ageri da.

ITAUNDU. Egun bizkaierakotzat jotzen badugu ere, Oihenartek ere ba darabil.

EGOTZI. Azkuek ez du Gipuzkoakotzat ematen; dionez, Nafarroa garaiean, Nafarroa behean, Erronkarin eta Bizkaian jasoa du.

EBATSI. Gipuztekin OSTU, LAPURTU liokete, eta sortaldeko euskalki gutzietan ageri da. Otxoa-Arinek OHOSTU, HOOSTU, ere ba darabiltzi. HAZTU, HERI, HORDUAN hitzetan ere H darabil, baina OHOSTU/HOOSTU bikoteak araurik ez bat erakusten du, eta HERI eta HORDU-tan azaltzen direnak erderazko HERIDA-k eta HORA-k eragindakoak izan ditezke. Bestalde, MAATS, LEEN LÈN-LEN ere ba dakartzi.

EUTZI. Gure egungo UTZI. Azkuek Nafarroa beherekotzat ematen du.

J. OREGI

URTEGI. Jaurti, aurtiki. Mikoletak, ERETXI adierazteko darabil.

NAPUR. Azkuen hiztegian Nafarroa garaikotzat azaltzen da.

EUSKARA. Nafarroa garaiko zenbait herritakoa.

IFENI. Azkuek ez dakar. Antzerako F-dun IFINI Nafarroa garaikoa eta Bizkaiako zenbait herritakoa dala diosku.

JAITXI, JAURDUN. XVIII mendearen hastapenean Ordizian zerabiltzite-nak, ala irar-hutsak ote?

---

Ikusi dugunez, Otxoa-Arinen DOCTRINA-k Gipuzkoako euskerak eta bereziki aditzak azken mendeetan izan dituzten aldakuntzen alderdi batzu ikasteko aukera ematen digu.

\*EDIN-en flesioetan, bizkaierazkoak eta giputzak nahasi agertzen dira:

Alde batetik, GAITEAN, ZEITEAN, ...  
eta bestetik LITEZKE, ZITEZKEN, ...

Bainan, nere ustez, NORK-dun laguntzaileari dagozkionak ditugu, seguraski, aditza ulertu ahal izateko gehien lagun dezaiguketenak.

\*EZAN-i bagagozkio, berehala agertzen zaiguna hauxe: Aditz-gai bakarra duten flesiorik gehien-gehienak (57-tik 45, oker ez banago),

DAIKE, DEIKEO, ZEIKEAN, DAGIAN, DAGIZUN,  
ZEGIAN, ...

EGIN-enak, eta aditz-gai askardun guzti-guztiak berriz,

ZAITZATAN, DITZAGUN, GAITZAZU, BITZA, ...

\*EZAN-enak direla. Lehen-begiratu batean bikoiztasun hori harrigarri bazaigu ere, orduan gertatzen ari zen aldakuntza baten adierazle eta lekuko dugu.

UKAN-en noridunetan ere antzera gertatzen da: Aditz-gai bakardunak I hutsezko,

DIOT, DIZUT, DIET, DIT, DIGU, ...

eta aditz-gai askardunak

DIRAUTZUT, DIRAUZT, DIRAUZKU, ZIRAUZKUN, ...

beti RA-dun ematen ditu.

---

UKAN-en noridunok aztergai garrantzitsu bat dakarkigute aurrera. Dakigunez, flesio hoiek hirutarikoak izan ditezke:

- A- I hutsezko DIT, DIK, DIO, ...
- B- RA-dunak, DERAUT, DERAUK, DERAUKA, ...  
DARAUT, DARAUK, DARAUKA, ...  
DRAUT, DRAUK, DRAUKA, ...
- D- (T)S-z eraturakoak, DEUST, DEUSK, DEUTSO (DEUTSA), ...

Adibide-gisa HARI-dunak har baditzagu, sistema bakoitzekoei, aditz-gai askardunetan, honako hauek dagozkie:

dio/dizkio; derauka/derautza, drauzkio; deutso/deutsoz

Batzuen iritziz sistema horietatik bi, hots, RA-duna eta (T)S-zkoa, osoak ditugu, hirugarrena ez ordea.

Kintanaren ustetan, adibidez <sup>1</sup>,

$$\frac{\text{dio}}{\text{derauka}} = \frac{?}{\text{derautza}}$$

alderatze batek sortaraziko zuen DIOTZA eta, hau Lapurdin gelditu zala, Gipuzkoan

diotza > diozka > dizka > dizko > dizkio

baten bidez jaioko bide zan azkeneko hori.

Nolanahi ere, garbi dagoena hauxe: DERAUKA, DEUTSO eta horrelakoetan ageri dan U hotsak erakusten duanez, flesio hoiek UKAN aditzeko dirala, eta I hutsezkoak berriz, erabat bestetara, jatorriz beste aditzen bateko ditugula. Horrek ez dakar, ordea, I hutsezko aditz-gai askardun flesiorik egon ez, eta DIZKIO erakoak lehen jarri dugun bilakatze horren ondorio izan beharrik.

Hona Kintanak bere ustearen indargarri ematen dizkigunak:

- A- I-zko flesioak Etxeparengan eta Leizarragarengan bakan azaltzen dira. Axular-ek berriz DIO/DERAUKA nahasian darabiltzi; aditz-gai askardunetan berriz, DERAUTZA erakoak bainan ez.

<sup>1</sup> X. KINTANA, *Linguistika orain arte*. HASTAPENAK saila, 1971.

J. OREGI

B- Gipuzkoako Goierrin askargilea (DIO/DIOZKA) HARI-dunetara baizik ez omen da heltzen, DIT, DIDAZU eta horrelakoetara gabe.

D- Azkoitian ere,

«liburu bat ekarri DIDAZU» eta «liburuak ekarri DIDAZU»  
berdin esaten omen dituzte.

Hasteko, hori horrela ez dala esan behar da. BALENTXI azkoitiar bertsolariarenak irakur baditzaugu honako hauek arkituko ditugu<sup>2</sup>:

«... bialtzen ZIZTAN oso abisu zorrotzak ...» eta  
«... kalte aundiak egin ZIZTAN ...»; beraz, ZI(D)AN/ZIZTAN.  
«... gauzak esan ZIZTEN ...», eta ZIEN/ZIZTEN.

Bestalde, azkoitiarrei hamaika aldiz entzun izan dizkiegu

dit/DITXIT, digu/DIZKU

eta horrelakoak.

Axular-ez diona, berriz, Otxoa-Arinenak irakurri ondoren indarririk gabeko gertatzen da; izan ere, Ordizian XVIII mendearen hasieran EGIN-en eta \*EZAN-en flesioak bakarrarentzako eta askarrentzako zerabiltziten bezela Axular-ek I-zko eta RA-zkoak erabili izatea ez da harritzeko.

Ikusi dugunez, RA-dunak 1713.garrenean Ordizian aurkitzen ditugu, I hutsezkoak Etxeparengan eta Leizarragarengan irakur ditezke, eta (T)S-dunetan berriz, Leizarragak \*ION aditzeko «ZIOSTAN, NIOTSAN, ZIO-TSAN» eta JARRAI-ren «DARRAIST, DARRAISKO» ematen dizkigu.

Hauek, nere ustez, zera erakusten digute: Aspaldi zaharrean hiru sistemok euskalkiz mugatuak ez bainan euskera osoko izan zitezkeela, orain galdurik dauden berezitasun batzuen jabe zirala, agian.

Gipuzkoako Goierrian RA-dunek oraintsurarte iraun zirautela, azkenean giputz-giroa indartzeak gal-araziko zien, bainan bi sistemetako

DIRAUZT eta DIZKIT  
DIRAUZKU eta DIZKIGU-n

<sup>2</sup> Azkoitiako zenbait bertsolari —AUSPOA liburutegia— 95/96 alea.



OTXOA - ARINEN «DOCTRINA» — (1713)

arteko aldeak eragozpen zitzaizkiela, giputz-flesio hoiak bertako egiteke gelditu dirala.

Hastapenean aipatu dugun euskal-aditzarekiko teoria osatzean horiek oro kontuan hartu beharrezkoak ditugu.

J. OREGI

Bergaran, 1972-VIII-25

